

Ezpalak

JON TORNER

Asel Luzarraga idazle bilbotarrak *Mozorroaren xarma* (Erein) nobela argitaratu du. Bere hirugarren eleberriko pertsonaia nagusia inora moldatu ezin den Zigor izeneko mutil gaztea da. Haren bidez, gizarteak agertzen dituen arriskuez hitz egin du Luzarragak.

Jabier Muguruzak *Konplizeak* (Elkar) bere bederatzigarren bakarkako lana kale-ratu du. Bere aitaren heriotzak sorturiko sentimenduak azaleratu nahi izan ditu Muruguzak lan berrian, aurreko diskoan baino kolore eta erritmo gehiago erabiliz. Estreinako kontzertua urriaren 31ean eskainiko du Irunen.

Gamarra familiak Gasteizko Artium museoari dohaintzan emandako 500 pelikulen eskuko programekin *Gamarratarak zinemara doa* erakusketa osatu dute. 1940 eta 50eko hamarkadetan Gasteizen ikusi ziren filmak dira guztiak. Urtarrilaren 6a arte izango dira ikusgai.



Rec eta Los Cronocrimenes emango dituzte Beldurrezko Zinemaren Astean

Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaren XVIII. Astean Jaume Balaguero eta Paco Plazaren *REC* eta Nacho Vigalondoren *Los Cronocrimenes* filmak proiektatuko dituzte. Sail Ofizialari dagokionez beste hiru film nabarmendu daitezke: *Dard Diverce* –Olaf Ittenbach zuzendari alemaniarrek Donostian estreinatuko du pelikula gore hori–, Yoshiaki Kawajiriren *Highlander: The search of Vengeance* eta Lloyd Kaufmanen *Poultrygeist: Night of the Chicken Dead*. Komiki jardunaldiak, erakusketak, film laburren lehiaketa eta *American Gothic*. **AEBko beldurrezko zinema 1968-1980** izeneko zikloa ere jasoko ditu egitarauak. Azken horretan *Night of the Living Dead* eta *The Exorcist* moduko filmak eskainiko dituzte. Urriaren 27tik azaroaren 3ra bitartean egingo da Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaren Astea (www.sansebastianhorrorfestival.com).



Antzerki eta dantza garaikidea Bilbon

BAD, BILBOKO ANTZERKI ETA DANTZA Garaikidearen XI. Jaialdia urriaren 26tik azaroaren 4a bitartean egingo da Bizkaiko hiriburuko hainbat eraikinetan: Arriaga antzokian, Bilborock eta La Fundación aretoetan, San Frantzisko Auzo Etxean, BilbaoEszenan... Besteak beste, Euskal Herriko, Portugalgo, Espainiako, Suitzako, Japoniako eta Brasilgo dantza eta antzerki taldeek parte hartuko dute jaialdian. Joclécio Azevedo koreografo brasildarrak *A pesar das evidencias* performancea eskainiko du hilaren 27an Bilborocken; eta Ieltxu Martinez euskaldunak eta Marcia Bernardes brasildarrak sortutako Teatro Kapota mas não Breka konpainiak *Destrangjis* ekimena aurkeztuko du urriaren 29tik azaroaren 2a bitartean. Bizileku-laborategi multidiziplinar horrek herritarren parte hartzea eskatuko du. BAD jaialdiko egitarau osoa Interneten aurki dezakezue: www.badbilbao.com.

Iratxe Ibarrek Berrian: «Jaialdietan baino gehiago gozatzzen dut libreko saioetan. Nahi duzuna esateko libreago zara, ez zaude inoren menpe, entzulea gertuago sentitzen duzu, zeuk aukeratzen dituzu gaiak, eta bertsoetan nahi beste egiten duzu: saioa txarto doala ikusiz gero moztu, eta bestela, ekin. Zenbat aldiz geratu garen jaialdi batean arrazoi on bat etorri eta isilik, ordurako bakoitzak launa bertso botata genituelako, eta ez zelako luzatzea komeni (...) Errua nork daukan? Gai-jartzaileak ez behintzat».

Itziar Madinak Beterriko Liburuan: «Maila desberdinak daude Ipar Euskal Herrian. Pentsatzen dut hegoaldean ere badaudela, baina hemen askoz garbiago daude. Hau da, euskaltzaleek badakite zer den euskal idazle bat, baina giro euskaltzalean bizi edo murgildu izan ez direnei azaldu egin

behar diezu zer den euskal idazle bat, liburuak atera daitezkeela eta gainera euskaraz idatzitako liburuak sor daitezkeela! (...) Beraz, zer den lanik premiatsuena Ipar Euskal Herrian? Bada, ohore maila ematea idazleari, liburuari, idazte prozesuari, hau da, sorkuntzari, eta, aldi berean, baita irakurzaletasunari ere. Eta horiek guztiak, noski, euskaraz egiten dituztenei».

Enkarni Genua Txotxongilo Taldearen sortzaileak Gaur8n: «Umeak ez dira asko aldatu, gertatu dena da haurtzarora murriztu egin dela. Lehen 12 urte bitarteko neska-mutilak etortzen ziren (...) Gurasoek gero eta seme-alaba gazteagoak eramaten dituzten saioetara. Nik, gutxienez, 3 urte izatea eskatzen dut, bestela arriskua dago esperientzia, gozagarria izan ordez, beldurgarria izateko».

Meza bat Guggenheimen alde

Guggenheim Bilbao museoaren 10. urteurrena

Hamar urte eta gero hau. *Kyrie eleison* moduan izan genuen joan den astean Guggenheim museoaren urtebetetzearen berri. Hedabideen sermoia ostean Kristoren gorputza eskukadaka; antzeko kantu gregorianoa norabide askotatik: hasieran fedebakoek nolako kritikak egin zituzten eta zenbat itzuli diren artaldera; Gehryren beso titanikoak nola altxa zuen Bilbo, itsaso gorriak eta bi pasatzen ari zenean. Gaiaren abarretan interesa duenak begira dezala joan den asteko bandoetan.



Arteaz ez zen (asko) hitz egin. Urteurrena ospatzeko galan hango eta hemengo prokuradoreak izan zirela jakin genuen; Museoaren web gunean irakurri genuenez, oraingo euskal artisten erakusketa paratu dute "Hamargarren Urteurrena (sic) betetzeko dagoenean" –"dagoelako" ez zen hobe izango?–. Pulpitutik etorritakoak entzunda burutazioa mandeuliaren modura pasa da: konbentzitu egin nahi gaituztela. Oraindik, eta hamar urte dira, konbentzitu egin nahi gaituztela hartu zuten erabakia- ren zuzentasunaz.

Ahaztu egin dute nonbait, Mendiko Sermoia behin esatearekin nahikoa dela bakoitzak gehien komeni zaiona uler dezan. Ez dela *sinistran* sinesten dutenak seduzitzen ibili beharrik honezkero. Are gutxiago aurreko asteetan Erromak, galtzak lanez betez, erdia baino gehiago Getsemanitik arrastaka preso eraman dituenen. Esan nahi dut, gauzak dauden moduan, inor ez dela Noe-ren arkarekin sartzan hasiko. Eta Judas ere azaldu da, saltsa guztietako perrexil. "Zorionak zuri" birika betez abestu, zilarrezko hogeita hamar txanponen kontua gorde eta museoak sei kilometro autobideren prezioa duela atera du mahai gainera. Merke atera zaio Jerusalem tenplu berria.

Merke edo garesti, artearen berezko balioak ez du axola hemen. Gurutziltzatutako gizona, bi mila urte iraun duen artelana, ez zen txanponez ordaindu: mailu bat eta hiru iltze nahiko izan ziren, berrero kreatibo samar bat eta jendearen interesa. Interesik ez dago orain, ez artea sentitzeko, ez sustatzeko, ezta, sikiera, artistei jaten emateko ere. Hori ez dagoen bitartean, alferrik ariko zaizkigu sindikoak hasieran Jainkoak zeru-lurrak egin zituela kontatzen. Eta orain zoazte Jaunen bakean, museora ere bai, nahi baduzue.

GORKA BEREZIARTUA

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian

